



Nazioarteko profesionalak bisita gidatua egin zuten Igartzako monumentu-multzoan, Beasainen

Goi-mailako prestakuntza duten hamar bat profesionalak Igartzako kultur ondare zabala eta hango historia zein balioak ezagutu zituzten

2019ko azaroa. Joan den azaroaren 16an, Gipuzkoa Talentek urteko azken jarduera soziokulturala antolatu zuen, Gipuzkoaren bihotzean, abenduan ospatuko den Gabon-festaren aurretik.

Oraingoan, Igartzako monumentu historiko-arkitektonikoen gunean izan ziren, zeinetara Oria ibai gaineko XII. mendeko zubia zeharkaturik heldu ziren. Ondoren, Egurrezko Jauregia, burdinola, errota eta Dolarea (antzinako taberna, denda, ostatua eta ospitalea) ezagutu zituzten, jakiteko nola bilakatu den jendartea Erdi Arotik lanbideei, ohiturei eta abarri dagokienez.

Bisita gidatua egin ostean, taloak egiteko gastronomia-tailer batean parte hartu zuten, errotan, eta txokolatea dastatzeko parada ere izan zuten.

Jarduera honetan parte hartu zuten profesionalak Estatu Batuak, Mexiko, Erresuma Batua eta Turkiakoak dira, eta beren lan-jarduera erakunde hauek batean garatzen dute: AVS, Basque Center On Cognition, Brain and Language (BCBL) eta Ikor.